

JOSEBE ITURRIOZ

"Erasotzaileak beldurra izatea nahi dut"

Aurreiritzien aurrean, otordua elkarrekin

'Bizilagunak' egitasmoa ospatuko dute Gasteizen

Aitor Abecia, Zanbranako alkatea

"Berrehun laguneko whatsapp dugu herrian"



AZKENEAN, IRITSI DIRA DESKON TUTZA RRAK

BLACK FRIDAY

by euskaltel

ABENDUAREN

1 ERA

ARTE BAKARRIK

URTEKO AUKERA!

Orain da Euskaltelera
etortzeko unea

**DENA
3 HILABETEZ
DOAN**



Eta lehenetik bezero bazaitugu,
kontratatu produktu berri bat;
doan izango duzu hiru hilabetez.



Ezagutu Black Friday hemen:
www.euskaltel.com/blackfriday | Saltokiak | 1717

euskaltel

2015/12/02 baino lehen egiten diren 15 Mko edo hortik gorako Zuntzeko alfa berrietarako eta mugikorreko eta/edo TB-ko produktu berrietarako sustapena, betiere Zuntzeko bezero lehenetik direnentzat, %100eko deskontua, hiru hilabetez, kontratatzen diren produktu berrien hileko kuota, 12 hilabeteko iraupen-konpromisoa hartze hutsagatik. Eskuratu informazioa hemen: www.euskaltel.com/blackfriday

Babesle teknologikoa:





Alea

39. zk.

Azalean:

Josebe Iturrioz,
Montehermoson.



4



17



18



20

HARPIDETU ZAITEZ

ALEA astero etxean jaso nahi baduzu,
harpidetu zaitez. 50 euroren truke,
44 ale jasoko dituzu urtean.

www.alea.eus

- 4 Aurreiritziak gainditzeko, Bizilagunak ekinaldia Gasteizen.
- 8 J. Iturrioz: "Kategoria identitario finkoekin apurtu nahi dugu".
- 12 Iritzia: Oihan Txabarri, Iñaki Lazkano, Itsasiega.

ARABAKO KUADRILLAK

- 14 Gasteiz: Europa jauregiak bere edukiera lauokiztu du.
- 16 Aiaraaldea: emakumeen borrokak, ibilbide luzea.
- 17 Gorbeialdea: Zuriñe San Roman enpresaria, saritua.
- 18 Lautada: Lautada ikastolak, Araba Euskaraz enpresa.
- 19 Mendialdea: aterpea egin nahi dute Kanpezun.
- 20 Añana: Zanbranako alkateari elkarrizketa.
- 22 Trebiñu: aldaketak izan dira autobus enpresaren orduetaz.
- 23 Arabako Errioxa: mintzalagunen topaketa, Villabuenan.

HAMAICA SALTA

- 24 'Igandeak Jai', familiarekin euskaraz ondo pasatzeko.
- 26 Kuku: seme-alabekin euskararen transmisioa lantzeko gida.
- 27 Zozketak.
- 28 Postontzia.
- 29 Denbora-pasak.
- 30 Agenda.



Argitaratzailea
Arabako Alea Komunikazio
Taldea S.L.

Zuzendaria
Aritz Martínez de Luna Urzelai

Erredakzioa
Anakoz Amenabar
Itsaso Estarrona Elizondo
Mirian Biteri

Komertziala
Erlantz Anda

Denbora pasak
Bagabiga

Inprenta
Bidasoa inprimatzeko zentroa

Banaketa
Biderra zerbitzuak

EGOITZA NAGUSIA
Arabako Alea Komunikazio
Taldea S.L.
Escola kalea, 10. 13. bulegoa,
01001. Vitoria-Gasteiz, Araba
Tel.: 945 71 60 09
info@alea.eus

Erredakzioa
erredakzioa@alea.eus

Harpidetza
harpidetza@alea.eus

Publizitatea
publizitatea@alea.eus
695 63 28 62

Lege Gordailua: VI-32-2015
ISSN: 2386-8961

Tirada: 2.100 ale

Bultzatzaileak:



Laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua

Aste honetako kolaboratzaileak: Aitor Alvarez, Oihan Txabarri,
Iñaki Lazkano eta Iker Etxaniz.

ALEA ez du bere gain hartzen IRITZIA sailean, edo bestelako
orrialdeetako kolaboratzaileak, adierazitako iritzien erantzukizunik.

Etxeko ateak zabalik

Jatorri ezberdinetako Gasteizko hainbat familia elkartuko ditu Bizilagunak egitasmoak igandean, otordua elkarrekin egiteko; familiak ezagutu eta estereotipo eta aurreiritziak eraistea du helburu ekinaldiak. **ANAKOZ AMENABAR** @anamenabar GASTEIZ

Bakailao-nahaskia. Gonbidatu bereziak izango dituzte igandeko bazkarian Idoia Gomezek eta Delia Alonsok, eta otordurako zer prestatu ari dira erabakitzen. "Nazioarteko plater bat pentsatu dut hasieran, denon gustukoa, pasta agian, baina beharbada bertako tradizio handiagoko zerbaitegin beharko dugu... bakailaoa, bai, hori da, bakailao-nahaskia", esan du sukaldari lanak egingo dituen Alonsok. Urduri daude, mahaiaren bueltan beste familia batekin elkartuko direlako, azken unerarte ezagutuko ez duten familia batekin. CEAR Euskadi elkarte eta Gasteiz Irekia ekinaldiaren eskutik, jatorri ezberdineko familiak elkartu, otordua egin eta elkar ezagutzeko aukera izango dute Bizilagunak egitasmoari esker, beste hainbat etxetan egingo duten moduan.

"Gasteizen kultura askotariko lagunak bizi gara, jatorri ezberdinetakoak; elkarren berri dugu, kalean topo egiten dugu, baina beharbada harreman intimoagoak izateko zailtasunak ditugu, eta horretara dator Bizilagunak egitasmoa: mugak gainditzera dator", azaldu du egitasmoa sustatzaile Beatriz Luzek. Espazio publikoetan elkarbizitza errazagoa izan daiteke, baina zailagoa izaten da etxeko ateak parez pare

"Mugak gainditzera dator Bizilagunak egitasmoa; espazio pertsonalagoan sartzeko aukera da"

BEATRIZ LUZ
BIZILAGUNAK

"Aurreiritziak desegiteko beste aukerarik ez daukagu, gerturatu eta elkar ezagutzea baino"

IDOIA GOMEZ
BIZILAGUNAK

"Espazio publikoan oso diplomatikoak gara baina jakinmina dut etxe barruan nola izango den ikusteko"

DELIA ALONSO
BIZILAGUNAK

zabaltzea, eta hori egingo dute 30 familiak baino gehiagok Gasteizen igande honetan. Etxea edo aterpea jarri eta bazkaria prestatuko duten anfitrioiak izango dira, batetik, bertara joango diren gonbidatuak, bestetik, eta eurekin batera dina-

mizatzaile lanak egingo dituen lagun bat ere izango da. "Batez ere isiltasun momentu deseroso horietan lagundu eta bien arteko zubi lanak egiteko", gogoratu du Luzek.

Bazkarietan parte hartuko duten familiak ere askotarikoak dira. Idoia eta Deliaren antzera lagunak direnak, auzokideak, scout taldeak, anai-arrebak eta bestelako hamaika taldek ere parte hartuko dute. Aurretik denek galdetegi bat bete dute euren hizkuntzak, gustuak, kezak eta beharrezkoak jakiteko: "Zer jan dezaketen jakiteko, etxeko animaliekin arazorik ote duten ezagutze... eta horren arabera elkartuko diren familiak osatzen joan gara", gogoratu du Luzek. Horiek cear-euskadi.org webgunearen bitartez edo 945-26 68 05 telefonoaren bidez (Beatriz) egin daitezke.

Etengabe zabaltzen

Europa mailako egitasmoa da Bizilagunak, zazpi herrialdetan egin dute eta aurren, lehendabizikoz, Portugal eta Txekiar Errepublikan ere antolatu dute. Araban joan den urtean egin zuten aurrenekoz, familia gutxi batzurekin, baina etengabe hazten ari den ekinaldia dela gogoratu du Luzek: "Aurretik jarri zuten martxan Gipuzkoan eta dagoneko 4.000 lagunek baino gehiagok parte hartu dute bazkariotan".



Hernanin ezagutu zuen egitasmoa Gomezek, lagun batzuei esker, eta ez zuen zalantzarik izan igandeko bazkarian anfitrioi izateko: "Familiak gerturatzea zen asmoa eta honen bitartez lortu egiten zela kontatu zidaten; esperientzia polita izan daiteke, gogoia daukat etxera etorriko den familia ezagutzeko". Gomezek Alonsori proposatu zion eta hark ere ez zuen zalantzarik izan bazkarian parte hartzeko: "Espazio publikoan oso diplomatikoak gara denak, baina jakinmina daukat etxe barruan nola egongo garen ikusteko, bata besteari nola bizi garen kontatzeko". Egunerokoan jatorri ezberdinetako lagunak ezagutzea harentzat "zaila" dela dio Alonsok, eta "gertuagoko" esperientzia aberatsa izan daitekeela uste du.

"Gerturatu". Hain zuzen, hori ahalbidetzeko gai bat izango dute mahai gainean Bizilagunak egitasmoan parte hartzen dutenak. Etxean lan egiten duten emakumeak izan zituzten hizpide joan den urtean, eta

Esperientziak, bideoan

Bazkariak: Igandeko bazkari guztietan argazkiak eta bideo laburrak egingo dituzte dinamizatzaileek. Horiek guztiak batu eta abenduaren 5ean, 13:00etan, bideoen aurkezpena egingo dute Oihanederren. Ondoren, bazkaria izango dute parte-hartzaileek.

errefuxiatuen krisia izango dute aurtien. "Kanpotik datozenak, edo beste kultura batekoak izan eta bertan bizi direnak ezagutzea da gakoa; aurreiritziak desagiteko beste aukerarik ez dago, gerturatu eta ezagutzea", nabarmendu du Gomezek.

Azken urtean, gainera, Gasteizko kulturen arteko harremanek "kolpea" jaso zutela gogoratu dute, herritarren artean arrakala sortu zuena, eta berriz ere "itxi" beharre-

koa. Javier Maroto alkate ohiak esandakoak eta Gora Gasteiz mugimenduak erantzundakoak izan dituzte gogoan. "Gauza positibo moduan esan behar da, jendea inplikatu zela beste kultura batzuen alde eta kalea irten zela; oso polita iruditu zitzaidan", aipatu du Alonsok.

Momentu hunkigarria izan zen, Luzentzat ere, Gora Gasteizek eman zuen erantzuna: "Marotok beldurra- ren estrategia erabili zuen, uste dut erabil daitekeen estrategiarik zital eta zikinena, eta Gasteizek ezetz esan zuen, beldurrik ez zuela eta gainera herritarrak babestuko zituela". Herritarren mugimendua barrutik ezagutu zuen Luzek, eta lan asko egin behar izan zutela gogoratu du, besteak beste, prentsan agertu ziren hainbat datu eta zifra desmuntatzeko. Haren antzera, Gomezek ere parte hartu zuen Gora Gasteizen herritarren artean sortu zen "txinperta" itzaltzeko: "Atera behar ez zen txinperta atera zen herritarren artean alkatearen adierazpenekin,



Delia Alonso eta Idoia Gomezek prestatuko dute igandeko bazkaria. | ANAKOZ AMENABAR

baina zorionez hori guztia Marotorekin batera joan zen".

Gertatutakoak gertatuta, herri-tarrek Gasteiz "anitza" nahi dutela aldarrikatzen jarraitzen duela uste du Alonsok eta bizitakoa "ikasgai bat" ere izan zela. "Bazirudien alde batean edo bestean jarri beharra zeneukala orduan, batzuekin edo bestekin; noski, ni pertsonekin nago, ez dago besterik".

Aurrera begira eraiki nahi duten Gasteiz "irekia" osatzeko pauso txiki bat izango da igandekoa. "Egitasmo txikia izan arren, ezagutzen ez ditugun pertsonak gonbidatu eta esperientzia bikain joan dela kontatu ahal izatea oso garrantzitsua dela uste dut", nabarmendu du Gomezek.

Igandeko 14:00etan egingo dute guztiek topaketa. Zubiak eraiki eta aurreiritziak desegiten hasteko "aukera aproposa" izan daitekeela berretsi du Luzek, eta oraindik animatu ez direnei azken orduan ere izena eman dezaketela gogoratu die: "Espazio pertsonalago horiek zabaltzeko momentua da".

EUROPA

BILTZAIR JAUREGIA
CONFERENCE AND EXHIBITION CENTRE
PALACIO DE CONGRESOS Y EXPOSICIONES

**VITORIA
GASTEIZ**
green capital



**25 URTE ELKARREKIN
AURRERA EGITEN**
www.vitoria-gasteiz.org/congresos

EUSKADI
renfe
Comunidad
de Madrid

Premio Anual OPC 1998

OPC
EUROPE

APCE

Asociación de
Profesionales de Congressos
de España

SCB
Spain Convention Bureau



Araba Garoñarik Gabe plataformak joan den otsaileko manifestazioa iragartzeko egindako agerraldia. | RAUL BOGAJO

Garona, bozetara

Araba Garoñarik Gabe plataformak manifestazioa deitu du abenduaren 19rako, Espainiako hauteskunde bezperarako, zentrala berriz irekitzearen kontra; konpromisoak eskatu dizkie erakunde eta alderdi politikoei. **A. AMENABAR** GASTEIZ

Garoñako zentral nuklearra berriz martxan jarri eta 2031ra arte lanean jarraitzeko lehen pausoa izan daitekeena eman du Nucleorrek, erreaktore ontziaren hobe-kuntza teknikoak aurkeztu baitizkio Espainiako Segurtasun Nuklearreko Kontseiluari (CSN) eta hark onartu. Erabakiaren "larritasuna" salatu eta zentrala berriz irekitzearen kontra protesta egiteko, mani-

festazioa deitu du Araba Garoñarik Gabe plataformak, datorren abenduaren 19rako, Espainiako hauteskunde bezperarako.

Espainiako Ingurumen Ministerioak urrian eman zion baimena Nuclenorri hondakin nuklearrentzako behin-behineko biltegia erakitzeko. Erreaktorea martxan jarri edo ixteko pauso beharrezkoa izan da hori, eta informazio faltak bateko eta besteko iritziak eragin ditu.

Araba Garoñarik Gabe plataformaren arabera, berriz irekitzeko "arriskua" argia da eta abenduaren 20ko hauteskundeetara aurkeztuko diren hautagaiei euren jarrera argitzeo galdegin die. Izan ere, alde teknikorako egokitzapenak egin ostean, Espainiako Gobernuak hartuko du azken erabakia. Alberto Frias plataformako kideak "larrial-di egoera" dela salatu du eta alderdi politikoei ez dituztela bete hartu zituzten konpromisoak.

Ildo beretik, Arabako Ingurumen ahalduak adierazi du Aldundia ez dela "begira" geratuko, eta bere esku dagoen guztia egingo duela Garona berriz irekitzea eragozteko. Erreaktorea berriz martxan jartzearen aurkako helegiteak aurkeztuko dituztela azaldu du.

**bernaola
festival
2015**



XII edizioa

azaroa

- 21 Sigma Project
- 22 Musikari Gazteak IV
- 23 Séverine Ballon
- 24 Luis Tabuena
- 26 Ensemble TaG
- 27 Musikene Orkestra
- 30 Guridi Garaikidea

www.bernaolafestival.com

JOSEBE ITURRIOZ

EKINTZAILE TRANSFEMINISTA "Sexuak ez dira existitzen; gure gizartearen kategoriak dira". Transfeminismoaren begirada ekarri zuen asteartean Gasteizera Josebe Iturrioz ekintzaileak (Ordizia, 1978). **ITSASO ESTARRONA / JON ALTZA** GASTEIZ

"Emakumea esentzian ez da existitzen: fikzio politikoa da"

Beti gaiztoekin" egongo da Josebe Iturrioz. "Gure gizartearen egiturak zalantzan jartzeagatik" egokitu zaio patu hori. ALEA aldizkaria eta Hala Bedi Bi euskarazko irratiko kazetariak gidatuta, SolasALEAN elkarrizketa irekian parte hartu zuen Medeak kolektibo transfeministako aktibistak asteartean, Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean.

Izotza apurtzeko, bibote bat ekarri dizugu. Gainera, Gasteizen jarritako zure kartel batzuetan bizarra margotuta agertu zara. Aitortu beharrekoa aitortu...

Ni izan naiz, bai...! Imajinatu zer den bilera batera etortzea eta taberna guztietan zure aurpegia ikustea. Kartel batzuetan bizarra margotu diot nire argazkiari: askotan nire buruari egiten diodan zerbait da.

Bibote horrekin lotuta, esaldi bat irakurriko dizugu, 'Genero-ariketak. Feminismoaren subjektuak' testu-bildumatik: "Ulertu dugu emakumeak gizon izan gaitzkeela, eta berriro emakume izatera itzuli, eta bidebatez bidean galdu"...

Halako batean, feminismoaren estrategia bat hauxe esatea izan zen: sexuak ez dira existitzen. Ez dira esentzia bat, baizik eta gure gizarteak sortutako kategoriak. Hori demostratzeko, Medeak taldearen praktika politikoetan trabestismoa erabiltzen genuen. Gaur egun, gure lagunei haien umea zer den galdeztzen dietenean, hauxe erantzuten

Hitzordu batzuk

PLATAFORMA FEMINISTA

Azaroak 25, asteazkena: emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kontrako manifestazioa, 19:30ean Andra Mari Zuriaren plazatik abiatuta.

BIZIRIK ELKARTEA

Azaroak 28, larunbata: indarkeria jasan duten emakumeen elkarte berriaren aurkezpena 13:00etan, Gasteizko Sukubo aretoan. Ondoren, goiz eta arratsaldeko kontzertuak, umeentzat tailerrak, zunba klasea, dantza eta argi ikuskizuna eta dj-ak Informazio guztia: <http://mujeresbizirik.blogspot.com.es>.

GASTEIZKO UDALA

Azaroak 27, ostirala: 'La niña y el lobo' liburu-diskoaren aurkezpena Montehermoso kulturunean. Hizlaria: Amparo Sanchez. Parte-hartzaileak: Maitena Monroy Romero eta Mariago Lopez Villalta.

BELDUR BARIK PROGRAMA

Azaroak 28, larunbata: 12 eta 26 urte bitarteko gazteentzat Beldur Barik topaketa Amurrión, 16:30etik 22:15era. Zazpi ikastaro, luntxa, sari banaketa. Doako autobusak (www.beldurbarik.org).

dute: oraindik ez dakigu, berak aukeratuko du.

Anatomiak, beraz, ez du zehazten nor den emakume eta nor gizon? Horretan datza, lerro nagusietan, transfeminismoa?

Ideia sakonagoa da: modernitateak sortu dituen egia horiek zalantzan jartzen ditugu transfeminismotik, eta egia horietako bat natura eta kulturaren arteko banaketa da. Bi-biak, natura eta kultura, batera ematen dira gorputz batean, eta gaur egun, gure gizartearen ezinezkoa da banatzea zer den kulturala eta zer den naturala, elkar elikatzen direlako. Beraz, transfeminismotik, zalantzan jarri genuen feminismoak betidanik erabili duen identitate hori: emakumea bera. Oso gogorra izan zen feminismoan urteak zera-matzaten emakume askorentzat. Guk ez dugu "emakumearen libe-razioa" bezalako esaldirik erabiltzen. Zergatik? Uste dugulako esentzia hori, emakumearena, ez dela naturalki existitzen. Emakumea fikzio bat da, kontzeptu politiko bat, oprimetua dagoena, botere-harreman batzuen baitan. Hor dago transfeminismoaren ekarpena, nortasunari zuzen-zuzen eragiten diona. Oraindik ere, eztabaida sutsuak eta sakonak izaten jarraitzen dugu.

Mugimendu feminista klasikoak emakumea jartzen du bere aldarrikapenen ardatz gisa, eta transfeminismoak, aldiz, gorputza eta, horren bitartez, aniztasuna.

Zein da aldea?

Transfeminismotik esaten dugu heteropatriarkatuak gorputz ez-normatiboak jipoitzen, mespretxatzen eta oprimitzen dituela, eta ez gara bakarrik emakumez ari, baizik eta arau horretatik kanpo dauden beste hainbat gorputzez ere. Gorputza erdigunean jartzeari esker, hainbat mugimenduekin aliantzak ahalbiderratu dira: aniztasun funtzionala edo arrazakeriaren kontrako mugimenduekin, antikapitalistekin, marikabollerekin, transekin, putekin... Bestalde, badaude zakila duten emakumeak, alua duten gizonak... Gure helburua kategoria identitario finkoekin apurtzea da.

Gasteizko jaietan polemika handia piztu zen, mugimendu feministak blusen eta nesken paseoa moztu zuelako. Kontuan izanda Medeak taldetik biolentziaren erabilera sinbolikoa defendatzen duzuela, zer irakurketa egin duzue?

Flipantea da, flipantea, erasotzaileei aurre egiten diegunean feministok gure burua justifikatzen ikusi behar izatea. Blusek eta neskek eraso matxisten aurkako protokolo bat sinatu zuten: jakina, haientzat emakume bat erailtzea edo bortxatzea da eraso bat; aldiz, lau-bost lagunen artean kutxazain batean neska bat izutzea eta kriston astakeriak botatzeta, haientzat ez da ezer. Parrandak jarraitu behar du. Blusa batzuk emakume bat erasotu zuten, feminista batzuk protesta egin zuten... eta, gainera, protesta egin zuten nesken gainean erori da salaketa. Matxismoak kriston tresnak ditu. Gutxi balitz, gertaera horren ondorioak jasaten jarraitzen dugu: Zuriñe Rodríguez gasteiztarrak horren inguruko artikulua bat argitaratu berri du, eta blusa eta nesken presidenteak, *tetatinen* tipoak, salaketa jartzeko mehatxua egin dio. Beldurra izan behar al dugu artikulua bat idazteko? Guk esaten dugu: beldurra lekuz aldatuko dugu. Zer nahi dugu, gizon guztiak beldurrez bizitzea? Ez: nahi dudana da erasotzaileak beldurra izatea. Neska bat erasotu nahi duenean, pentsatzea: agian neska honek autodefentsa



daki, estrategiak ditu, ez du beldurrik, katana bat darama gainean, eta burua moztuko dit. Bada garaia. Aurten, lau rogei emakume baino gehiago erail dituzte estatuan. Datu ofizialek hogeita hamar gutxiago zenbatu dituzte. Zergatik? Ez bada indarkeria heterozentratu bat, bikotearen inguruan ematen dena, ez dutelako kontatzen. Gogoratzen duzue Cuencako kasua? Neska bat bere lagun batekin joan zen mutil-lagun ohiaren etxera bere gauzak jasotzera, eta biak erahil zituen mutilak. Bada: neskaren laguna ez da erahilketa matxista bezala zenbatzen. Beraz... gu biolento deitzea kriston biolentzia da.

Twitterretik galdera bat jaso dugu: gizon bat feminista izan daiteke?

Galdera da: esklabuak dituen pertsona esklabu izan daiteke? Agian bai, egoerak buelta asko ematen ditu. Nik ez ditut karnetak banatzen: norbait feminista da, berarentzat feminismoa zerbait baldin bada eta berarentzat borroka hori garrantzitsua bada. Bere burua feministatzat izendatu nahi badu, zorionak. Nik gizona ezkoak animatu ohi ditut: hasi esaten maritxuak zaretela; sexu anala asko gustatzen zaizuela; aldarrikatu feministok aldarrikatzen ditugun gauzak, eta orduan izango zarete feminista. Ume txikiekin gertatzen zait: batzuk feminista direla esan, eta feministak ez diren baieztapenak egin; nik esaten diet: nahi baduzu zure burua feminista bezala izendatu, enteratu zaitez feminismoa zer den. Oso militantzia gogorra da feminismoa. Zure buruarekiko kritika zorrotza egin behar



A. MARTINEZ DE LUNA

"Emakumeak putekin aliatuko balira..."

Prostituzioa nola ikusten da betaurreko transfeministekin?

Feminista askorentzat prostitutak esklaboak dira. Transfeministak garenontzat, gauza bat da esklabutza, eta beste bat prostituzioa. Prostituziorako esklabuak erabiltzea gaizki dago, baina badaude beste gorputz batzuk aske erabakitzen dutenak puta izatea. Gizon heterosexual normatiboek kontsumitzen duten zerbitzua eskaintzen dute, eta, noski hetero-arauan dauden emakumeak (ezkontzen direnak, umeak izaten dituztenak...) ezin dira putekin aliatu. Aliatuko balira... aliatuko balira, sekretu asko apurtuko lirateke. Putak oso inportanteak dira gure mugimendu politikorako, gizartearen hipokresia erakusteko: ea nork altxatzen duen eskua, "putetan ibili naiz" esateko, edo "puta naiz" esateko. Bada garaia.

duzu: ez da korrante eroso bat, ez da kanpora begiratzen duen zerbait, barrura begiratzen duena baizik. Etengabe boterea kritikatzeko ari gara. Beraz, boterean eroso-eroso dagoen tipo bat, denbora guztian hetero-arauan mugitzen dena, feminista dela esaten badu, ba seguruenik gezurretan ari da. Orain arte feminismoa ez zegoen modan, eta inork ez zuen bere burua feminista izendatzen. Orain, dirudienek, batzuk pentsatzen dute *guay* dela, eta ez da *guaya*. Feminista zarenean, lehenengo gauza krisi bital izugarria izaten da: zer naiz ni? Zer egiten dut nire generoarekin? Nolakoak dira nire harremanak? Betaurreko moreak jartzen dituzu, eta leku guztietan patriarkatua ikusten hasten zara. Hori ez da eroso.

Euskara eta feminismoaren arteko lotura nolakoa da gaur egun?

Harreman zuzena duten bi opresioz ari gara, eta tamalez orain hasi da horien arteko lotura ematen: emakume feministak euskalgintzan sartu direnean. Ordura arte, euskarari ez zitzaion inporta. Askotan oso matxista iruditu zait euskal mundua: bertso-afari batera joan eta emakumezkoak ez ikustea... niri hori ez zait interesatzen. Uste dut performatiboki ezin dudala jasan falozentrisismoan oinarritutako botere irudi hori. Emakumeak euskalgintzak sartu direnean, niretzat oso erakargarri bihurtu da.

Publikoaren galdera bat: "Feminazi". Zer sentitzen duzu hori esaten dizutenean?"

Galdera hori Kattalin Minerri egin zioten, eta bere argudioa erabiliko dut: *feminaziak* ez dira existitzen.



Solasalean saioa, asteartean Oihaneder Euskararen Etxean.

AITOR ALVAREZ

Gure kontra egiteko irain bat da eta, zentzu horretan, interesatzen zait: *feminazi* deitzen didaten bakoitzean, nik ez dut justifikatuko bagaudela onak garen feminista batzuk, eta gaiztoak diren beste batzuk. Ni beti gaiztoekin egongo naiz, gaizto izatea tokatu zaidalako betidanik, kanpotik datorren kategorizazioagatik, egiturak zalantzak jartzeagatik. Zenbat gizon erahiltzen dituzte feminaziek urtero? Zenbat gizon bortxatzen dituzte? Nortzuk dira? Gu izan beharko gara. *Feminazia* naiz eta harro nago, jakinda hori ez dela existitzen.

Heterosexualitatea existitzen da?

Gure gorputza arautzen duen erregimen politiko eta ekonomikoa da, gizarte bitan banatzen duena: gizonak eta emakumeak.

Eta non kokatzen da transgeneroa?

Ni naiz transgenero bat, ni naiz lesbiana bat: ez emakume ez gizon, erdibidean dagoen gorputz bat. Maskulinitatearekiko lotura bat dut nik, trabestismorako joera... Hormonak ez ditut hartuko seguraski, nire gorputza tekno-zientifikoki eraldatzea sistemaren esanahietan erortzeko arriskua dakarrela uste dudalako. Gizon edo emakume izateko beste modu bat asmatuko dut. Subjektu politiko bezala nire tradizio guztia emakumeekin lotzen dut, erresistentzia-subjektu bezala: sufragistak, Atenaseko asanbladetako emakumeak, Lesbosen Safos eta Zugarramurdiko sorginak dira nire genealogia, baina ez dut nire burua emakume bezala ikusten; feminitatean ez naiz eroso sentitzen. Nire lagunek marikoia naizela esaten



Azaroaren 28an aurkezpen jaia egingo dute; argazkian, kartelaren irudi bat. | BIZIRIK

'Bizirik iraun duten emakumeak', batuta

Indarkeria jasan duten hainbat emakumek elkarte berria sortu dute Gasteizen: Bizirik elkarte, edo, haien leloak dioten moduan, "bizirik iraun duten emakumeen taldea", hain zuzen. Hainbat helburu ditu topagune berriak: biolentzia jasan edo jasaten ari diren emakumeei babesa eskaintzea; ahalduntze pertsonalerako eta kolektiborako baliagarri izatea; eta, azkenik, biktimen profila albo batera utzita, eraldaketarako eragile sozial bihurtzea. Azaroaren 28an (larunbata) aurkezpen jaia egingo dute Gasteizko alde zaharreko Kubo kaleko Sukubo aretoan. Goizez, elkarte aurkeztu eta La Omega y Michelle rap taldearen kontzertua eskainiko dute (13:00). Arratsalderako, egitarau zabala prestatu dute: zunba klasea (17:00), argi eta dantza ikuskizuna (19:00), Dj Miss biotza (20:00) eta Dj Yingrid (21:00). Informazio guztia: <http://mujeresbizirik.blogspot.com.es>.

didate. Erdibidean dagoen zerbait.

Publikotik galdera bat: noizko feminismo irakasgai bat eskoletan?

Eskola, gaur egun, desberdintasun sexualak sortzen dituen instituzio bat da eta, beraz, eskola bera berrantolatu behar genuke, ez asignatura bat eman. Irakasgai guztiak transbertsalki eraldatu beharko genituz-

ke: literatura, historia... Nolanahi ere, nonbaitetik hasteko, eskoletan autodefentsa feminista eskainiko nuke: gaur egungo nesken edertasun eredua ahultasunean oinarritzen da, eta indarkeria erabiltzen irakatsi behar diegu.

IKUSI BIDEOA: HIRINET.NET



ERROTA
HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Julián de Apraiz, 1 • 01012 VITORIA-GASTEIZ

OIHAN TXABARRI

PUBLIZITATEAN LIZENTZIATUA



Hurbiletik

Hain da zaila telebistari so eseri eta kalitatezko testigantzak jasotzea, ezustean harrapatu nindutela joan den asteko *Salvados* saioan Mikel Aiestaran kazetariak Siriako exodoaren harira botatakoek. Ahoan bilorik gabe aritu zen, bertakoek pairatzen duten etengabeko sarraskiaz eta europarron elkartasun faltaz, gure gobernuburuaren jarrera erakusle: “Errefuxiatuen banaketa egiten ari direnek ez daukate ideiarik (...) joan daitezela Alepora asteburu pasa, eta gero har ditzatela erabakiak. Ez ditzatela Bruselan

"Hurbiltasuna eta enpatia eskala txikira ekartzea besterik ez dugu"

har, zenbaki eta estatistikekin”.

Arrazoa du Aiestaranek, noski. Auziek ez dute itxura berdina teoriarik edo praxiarik, eta urrutetik hartutako hainbat jarrera nekez lirakeke justifikagarriak, hurbiletik ezagutuko bagenitu. Herritar xumeok ez dugu (zoritzarrez edo zorionez) milaka pertsonen etorkizun hurbilean eragin zuzena izango duen erabakirik hartu behar. Hurbiltasuna eta enpatia eskala txikira ekartzea besterik ez zaigu geratzen. Hortxe dago gure borroka, egunerokotasunean. Horregatik da hain txalogarria CEAR Euskadi erakundeak larunbat honetan Gasteizera ekarriko duen Bizilagunak ekimena. Aurreiritzien hiriburua izatearen kanona luzaroegi ordaindu duen hiriburu honetan, jatorri desberdinetako hainbat familia otordua partekatze beldurko dituzte. Aurreiritziak eraisteko asmoz. Auzokideek elkar ezagutzeko eta ulertzeko asmoz. Ez dute mundua aldatuko, baina abiapuntu ederra da. Hurbiletik begiratuta, gauzak argiago ikusten baitira.

IÑAKI LAZKANO

EUSKARA TEKNIKARIA



Azokara joateko beldur

Frantziako kale, taberna eta diskotekeei dardien odol usainak Europako bazterrak aztoratu ditu azken egunotan eta oihuka dabilta goi-agintari gerrazaleak: gerra da, gerra da! diosku ozen frantziar presidenteak, eta Espainiako La Razón egunkariak bakearen ikurraz atondu du albistea. Si vis pacem, parabellum. Ez diot arrazoirik kenduko Hollanden presidenteari, gerra dugu, gerrak gaitu. Besterik espero genezakeen? Islamiar Ejerzito-ko soldaduek ekarri

"Gerrak jada ez dira lokalak, globalak eta asimetrikoak baizik"

dute gerra gurera, eta min ematen ditugu, jakina. Ala handia da eta euren basakeria handiagoa. Amorruek eta itsukeriak bihozgabe egin ditu, fanatiko eta hiltzaile kupidagabe.

Nire ustez, zibilen aurkako erasoek ez dute inolako justifikaziorik ez Gazan, ez Sirian, ez Madrilan, ezta Parisen ere. Baina XXI. mendean gaude eta gerrak jada ez dira lokalak, globalak eta asimetrikoak baizik.

Odol eta gerra usainak etxeko atarian ditugunean Tony Blairrek diosku akatsa izan zela Irakeko inbasioa, gezurretan oinarrituriko eraso-erabakiak hartu zituztela. Hauts haieztatik basatza hauek.

Egin dezagun negar Parisko kaleetako hildakoak gogoan, baina ez ditzagun malko guztiak isuri, berriro ere izango baitugu hauen beharra. Tamalez, hau hasi baino ez delako irudipena dut, eta Sirian bezala azokara joateko beldur izango gara.

BIZILAGUNAK ITSASEGIAREN ZINTA



#Gerra

Nazioarteko gerra bihurtu da Siriako sarraskia. Estatu Batuak, Errusia eta NATOk esku hartzen duten gudan, bonbak jaurtitzen hasi da Frantzia, Parisko atentatuengatik mendeku hartzeko; sareko lubakietan txioak ugaritu dira. **I.ESTARRONA** @itsasoestarrona GASTEIZ



Aritz13 @YoLaTengo13

Gerran zaudela onartzen duzunean, eta indar militarra erabiliko duzula, terrorismoa zilegi bihurtzen ari zara.



Izar Mendiguren @itzulipurdika

Pelikula bat dirudi. Beldurrezkoa. Lekutan geratu dira hippie garaiak, bakea eta pozak. Esnatu, bada garaia #Paris



Iñaki Atxutegi @arangoitikoa

Zalantzarik ez izan. Pariseko atentaduen ondorioz kaltetuenak Europan sartu guran dabilzan errefuxiatuak izango dira.



Koldo Lizarraitz @lizarraitz

2004ko martxoan, hilketaren ondotik Espainiak Iraketik armada atera. 2015ko azaroan, hilketaren ondotik Frantziak gerran gehiago sartu nahi.



Jon Maia Soria @maia_jon

Eta orain Frantzia sutara egurra botatzen... alperrik da.



Gari Garaialde @GariGaraialde

Palestinan Beirut eta Parisko sarraskiak salatu dituzte. Guk ez, guk Paris bakarrik.

ASTEKO GUTUNA

Lagun ikusezina

MIKEL GARTZIA

<http://mikelsgartzia.blogspot.com.es>

GASTEIZ

Kontsumismoa gaitzesten dugunok problema izaten dugu opariekin. Bada, Gabonetarako badago irtenbide polita: lagun ezkutua delakoa.

Oso erraza da egiten. Azaro partean familiako guztien izenak idazten dira papertxotan, eta gero bakoitzak papertxo

bat ateratzen du zein tokatu zaion ikusteko. Norbaiti bere izena tokatzen bazaio, berriro egin behar da (oso barregarria izaten da). Oparia egiteko diru kopuru maximoa zehazten da, 50 euro adibidez. Dirudiena baino abantaila gehiago ditu metodo honek: zozketa garaiz eginez gero, azken orduko erosketa traketsa saihesten da; bakarra,

baina guztiei bermatzen zaie oparia; normalean egingo ez genion bati egitea tokatu ohi da eta horrek harremanak sendotzea dakar.

Etxeko txikientzat Olentzerok opari estra pare bat ekartzen du batzuetan, noski. Baina, edonola ere, nahiko festa bada haientzat Gabon gauean banan-banan hartu eta jabeari ematea, denen aurrean irekitzeko. Guztiak ireki

Parte hartzeko:
erredakzioa@alea.eus
Gehienez, 1.500
karaktere. ALEAK
eskubidea du gutunak
laburtzeko eta HIRINET.
NET-en elkarbanatzeko.

ondoren, zer-nori-nork ikerketa jartzen da martxan. Niri aurten tokatu zaidan pertsona ez nuen espero, ez dakit zer oparitu... Eskatuko diot laguntza bere gertuko norbaiti. Lagun ezkuturik gabe gertatuko ez zen elkarriketa izango dut.



Hala Bedi tabernako nobedadeak

Astelehenetik ostiralera
Eguneko platerra + edaria
6€

...eta ostegun gauetan fajrak eta natxoak

Kutxi 101

Telf: 945 26 04 11



Barne eratzun berdearen lehenengo urratsa izan da Gasteiz Hiribideko eraldatzea, Batan erreka lurrazalera ekarrita. | QUINTAS

Europa jauregia, 5.700 pertsona hartzeko prest

Azken erremateen zain, "lehen mailako biltzar etxe" bilakatu da Gasteiz Hiribideko eraikin itxuraldatua

ERREDAKZIOA

GASTEIZ

Berlingo harresia behin erorita, eta Europako bateratze-prozesua hasita, Euskadiko lehenengo biltzar-etxea estreinatu zuen Gasteizek 1989an: Europa jauregia, hain zuzen. Orain, mende laurdena igarota eta azken txukuntze-lanen faltan, sorreran baino lau aldiz pertsona gehiago hartzeko prest da Gasteiz Etorbideko eraikin

itxuraldatua: handitze lanen ondorioz, 5.700 laguntzat tokia du, hasierako 1.499en aurrean, berritze lanen ondoren "lehen mailako biltzar etxe" bihurtuta.

Jatorriz, hiru gunez osatuta zegoen Europa: kiroldegia, gune soziokulturala eta biltzar etxea. Aldiz, eraikin osoa kongresuetarako baliatzeko lanak abiatu zituen Gasteizko Udalak 2006an.

Zabaltze lan horien ondorioz, hiru gune nagusi bereizi daitezke bertan: iparraldeko hegala, 25 bilera gelekin; hegoaldekoa, guztira 3.000 metro koadro dituzten hiru erabilera anitzeko espazioekin; eta erdiko gunea, auditoriuma, jatetxea, terraza, lorategi-gunea eta atondo nagusia barne.

'Green' ezaugarriak

Itxuraldatzea 2014an egin

zen kanpotik nabarmen, fatxadan landareak jarri zituztenean, lorategi bertikal bat sortzeko asmoz. Izan ere, "berde barrutik, eta berde kanpotik" baita, hiriko Turismo zerbitzuaren hitzetan. Identifikazio marka gisa eta funtzio estetikoak izateko bakarrik ez: eraikinaren jasangarritasuna indartzeko ere jarri zituzten etxaurreko landareak; hain zuzen, eraikina zaratatetik eta



**Erabilera anitzeko
hiru gela ditu
Europak.**
QUINTAS

Eguzki-plakak ezarri dituzte eraikinean, CO2 isuriak murrizteko

eguraldiaren gorabeheretatik isolatzen laguntzeko (isolamendu termoakustikoa). Eraginkortasun energetikoarekin lotuta ere, bestelako neurriak hartu dituzte bertan, CO2 isuriak murrizteko: estalduran eguzki-plakak ezarri dituzte, berogailu eta hozte-sistemak aldatu dituzte eta biomasa biltzeak jarri dituzte, besteak beste. Laster Passivhaus izeneko ziurtagiria eskatuko du Udalak, erdiko guneko energia-autosufizientzia egiaztatzeko.

Gasteiz etorbideko eraberritzea helburu horiek

zerikusia du ere. Zehazki, karbono dioxido gasen isuria murrizteko barne eraztun berdearen lehenengo urrats bat da, hainbat hegaztiren zatia geldialdi-gune bezala balio duena. Batan erreka lurrazalera ekartzeko lanekin, era berean, lurrazpiko korronteak onbiderratu nahi izan dituzte, eta uraren maila freatikoak (presioak) erregulatu.

Azken bederatzi urteetan lanetan murgilduta egon izanagatik ere, kongresu jarduerak ez da eten, eta irailaz geroztik, "areagotu ere egin da", Juana Maria Rico kongresu teknikariak nabarmendu duenez: Festvalaren ekitaldiak, Magialdiko jardunaldiak, Euskadiko aseguru bitartekarien kongresua, Arabako etxe-

Aretoak

BILERA GELAK

Bilera gelak: 25 gela, guztira 450 lagunentzat lekua dutenak.

Erabilera anitzekoak:

Green Capital aretoa (580 metro koadro), Olarizu aretoa (1.400 m²) eta Estibaliz aretoa (1.250 m²).

Erdiko gunea: Maria de Maeztu auditorioa (800 lagunentzat), atondo nagusia, jatetxea, terraza eta lorategi-gunea.

tako medikuntza biltzarra, psikomotrizitate jardunaldiak eta Gasteizko Biotechnology Institute-antolatutako ahoko inplanten kongresua.

Hurrengo ekitaldiak

Urte bukaera arte, beste hainbat hitzordu hartuko ditu Europak, horietan nabarmenetako bat datorren asteburuan (azaroaren 26 eta 27an) ospatuko den Turismo Jasangarriko Mundu Biltzarra.

Berdea ere, baina publiko guztiarentzat irekia, nazioarteko bonsaien erakusketa egongo da ikusgai abenduaren 5etik 7ra, goizez (10:00etatik 14:00etara) eta aratsaldean (17:00etatik 21:00etara 5ean eta 6an, eta 20:00ak arte 7an).

bizitza topaketa eta Gasteizko ezkontza eta zereemonia azoka egin dituzte bertan, bai eta Larrialdie-

IRUDI GEHIAGO: HIRINET.NET



**Energia
eraginkortasuna
bilatu dute.**
QUINTAS



Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra hainbat ekitaldi antolatu dituzte; irudian, 2013ko bat. | AIARALDEA

Emakumeen borroka; isilpetik, plaza publikora

Hainbat aldaketa izan arren, indarkeria matxistaren kontrako pauso gehiago eskatu dituzte

TXABI ALVARADO BAÑARES

AMURRIO

Urtero bezala, hainbat elkarretaratze egingo dira eskualdean azaroaren 25aren harira, indarkeria matxistaren desagertzearen alde. Etxeko pribatutasunetik herrietako plazetara egin du salto problematikak. Salto handia izan dela diote eskualdeko emakumeen elkarte gehienek, baina oraindik pauso asko eman behar direla.

Lehenengo mobilizazioak Franco hil osteko urteetan eman ziren, hiriburuetan, baina apurka hasi ziren Aiaraldean ere lehen emakume elkarteak sortzen. Emakume ugari bildu ziren talde horietan, eta esperientziak eta bizi-penak komunean jarrita ondorioztatu zuten indarkeria kasuak ez zirela etxeko egoera isolatuak, feno-

meno orokortu bat zela indarkeria matxistarena. Arazo hori existitzen zela kontzientziatu behar izan ziren lehenbizi, Menagarako Emakume Taldeko lehendakari Ana Ugarteren esanetan.

Hiriburuetatik, herrira

"Hasieran hiriburuetan egiten ziren mobilizazioetara joaten ginen", azaldu du Artziniegako Hiriska Emakume elkartearen lehendakaria den Maite Iztuetak. Baina Artziniegan bertan elkarretaratzeak egiteari ekin zioten gero. "*La maté porque era mía* lemaaren aurka egiten genuen, emakumeak inorenak ez gine-la aldarrikatuz", oroitu du Laudioko Emakume Asanbladan zebilen Pili Elortegik. Institutuan sortu zen taldea, eta abortuaren edota adulterioaren legeen

aurka ere aritu ziren.

Mobilizazioetara joateagatik herritarren komentarioak entzun behar zituztela azpimarratu du Amurrioko Aurrerak elkartearen Irene Novalesek: "Ez zen erraza manifesta-

Indarkeria matxistarekin jarrera 'tinkoagoa' izatea eskatu dute

zioak antolatzea, are gutxiago herri txikietan".

Urteak aurrera egin ahala, baina, handitu egin da elkarretaratze horietara doazen pertsonen kopurua. "Hemen gaudela esateko balio dute mobilizazioek", Novalesen aburuz; arazoa sozializatzea da helburua, etxetik plazara

ateratzea. Artziniegan ere garrantzi handia ematen diete elkarretaratzei, Espainian hilketa matxista bat ematen den kasu bakoitzean ateratzen dira plazara.

Barne mailako lanketa

Baina eskualdeko elkarteak ez dira mobilizazioak egitera mugatu, barne mailako lanketan jarri izan dute bereziki arreta. Tailerrak, hitzaldiak... makina bat ekimen egin izan dituzte indarkeria matxistarekiko kontzientziazio eta prebentzioa garatzeko. Menagarrain, adibidez, autodefentsarako tailerrei eman diete lehentasuna, etxeen arteko distantziek eta bide argituen gabeziak hala eskatzen zutelako, Ana Ugarterek adierazi duenez.


Erronka komun bat izan dute elkarteek: indarkeria matxista pairatzen ari ziren emakumei salaketa jartzeko pausoa ematen laguntzea. "Salaketa bat jartzea ez da ogia erostea bezain erraza", azaldu du Ugarterek. Baieztapen horrekin bat egiten du Idoia Gregoriok: "Oso ondo dago salaketa jartzea. Baina salatu ostean zer? Emakumea etxerik gabe, sostengu ekonomikorik gabe eta lagunik gabe geratu daiteke".

Horregatik guztiagatik, oraindik pauso asko emateke daudela ondorioztatu dute elkarteetako kideek. Indarkeria matxistarekiko jarrera "tinkoagoa" izan beharko litzatekeela uste du Idoia Gregoriok. "Ez da normala Madrilen iragan azaroaren 7an milaka pertsona mobilizatzea eta hurrengo bi egunetan hiru hilketa gertatzea". Ana Ugarterentzat, berriz, "sinesgaitza" da matxismoa eta feminismoa parekatzen dituzten diskurtsoak oraindik ere tokia izatea. "Belau-naldi askoren lana falta da oraindik".

ZURIÑE SAN ROMAN

ENPRESARI GAZTEA Arabako Emakume Enpresarien Elkarteak (AMPEA) Talleres Mecanicos Legutiano enpresako arduradun Zuriñe San Romanen lana txalotu du. Enpresari gazte onenaren saria eman berri dio. **MIRIAN BITERI** LEGUTIO

"Laguntza barik ezinezkoa litzateke arduraduna izatea"



Zuriñe San Romanek Talleres Mecanicos Legutiano gidatzen du, beste hainbat bazkideekin. | MIRIAN BITERI

Pozik dago Zuriñe San Roman legutiarra Arabako Emakumeen Elkarteak eman dion sariarekin. Azken urteotan egindako esfortzuak merezi egin duela uste du.

Zorionak! Zer suposatzen du zuretzat sari horrek?

Oso garrantzitsua izan da niretzat. Dagoeneko hamai-ka urte daramatzat Talleres Mecanicos Legutianon lanean, baina oraindik gogoan dut hasiera. Oso zaila izan zen, enpresaz tutik ulertu barik sartu nintzelako. Aita hil zen eta handik gutxira bertako finantza-zuzendaria ere larri gaixotu zen. Enpresa hankaz gora geratu zen. Nik nire ikasketak eta lana nituen. Enpresa aitarena zen eta nebak ere bertan egiten zuen lan, baina ni bakarrik domeka solte batean edo makina berria ikusteko joaten nintzen

bisitan. Egoeraren aurrean, erabaki bat hartu beharra zegoen, eta bertan laguntzen hasi nintzen. Finantza-zuzendaria itzuli zenean, lan asko zegoela eta enpresan egiteko gauza asko nituela esan zidan; geratzea erabaki nuen. Hasiera oso gogorra izan zen, eta hortaz, sari hau egindakoaren aitortza bezala ikusten dut. Horren harira, eskertu nahi dut lankideek nigan jarritako konfiantza; ni hutsetik hasi nintzen eta.

Oker ez banago, beste sari bat ere jaso izan duzue...

Bai, hala da. Enpresa gidatzeko praktika onengatik saria eman ziguten orain dela hainbat urte. Krisian egon bagara ere, ahalegin-du gara kaleratzerik ez izaten, eta egindako esfortzua saritua izan zen. Orain jaso berri dudana saria, baina, ezberdina da.

Zehazki, zer egiten duzue Talle-

res Mecanicos Legutianon?

Mekanizazio enpresa gara, hodian formaziorako lanabesak egitera ardaztuta dagoena. Gure produktu

"Hasiera gogorra izan zen, eta hortaz, saria egindakoaren aitortza da"

"Azken biltzarrean, kazetaria ote nintzen galdetu zidaten"

izarra arrabolak dira, plano bidezko bestelako piezak edo mantentze lanak egiten baditugu ere.

Zuzendaritzan zaude. Zein da zure lana?

Denetarik egiten dut, baina bereziki finantza, giza

baliabideak eta enpresa estrategiarekin lotutako gaiak eramaten ditut; gainerako bazkideak ekoizpenaz eta alde teknikoaz arduratzen dira gehiago. Esan beharra dago, enpresa eramateko orduan oso ondo moldatu izan garela beti. Dena dela, asko dut oraindik ikasteko.

Gaztea izateagatik topatu al duzu zailtasunik?

Gaztea eta emakumea izateagatik, dena elkarrekin. Oztupo asko ditut; ahal ditut kontatu milaka istorio. Esaterako, bezero eta hornitzaile berriak datozenean eta jaisten naizenean, uste dute ni idazkaria naizela eta kudeatzailerarekin nahi dutela egon esaten didate. Edo alorreko biltzar edo mintegi batera noanean, emakume zuzendari gutxi ikusten ditut. Azkenengoan, gainera, kazetaria ote nintzen galdetu zidaten. Mundu honetan emakumea izatea oso zaila da.

Enpresako arduradun izateaz gain, ama ere bazara. Batera-garria al da arduradun postua eta familia?

Laguntza baldin baduzu, bai. Horregatik, joan den asteko saria jasotzean, esker-erak eman nizkion Xabier nebari, bere konfiantzagatik; amari eta bereziki, Anderri, gure umeez arduratzeagatik. Laguntza hori barik ezinezkoa izango litzateke. Egindako esfortzuak merezi duela agerian geratu da sariarekin.

Amaitu aurretik, zer ezaugarri behar ditu izan zuzendari batek?

Hori jakin nahiko nuke nik. Tokatu zait hemen egotea, nik aukeratu dut, eta ahalegintzen naiz gauzak ondo egiten. Orain esperientzia gehiago daukat, baina, hasieran, sen onez gidatzen nintzen; bakoitzak dituen idealak ere garrantzitsuak dira. Horrez gain, ondoan dituzunen laguntza ere ezinbestekoa da.

ANJEL OLALDE

ARABA EUSKARAZ-EKO KOORDINATZAILEA Ekainaren 19an Agurainen ospatuko den jaiaren nondik norakoak azaldu ditu Hirinet FM saioan. **M. UGARTE / I. ICIAR / A. AMENABAR** GASTEIZ

"Aurrerantzean zer lortu nahi dugun zehazteko garaia da"



Anjel Olalde Arabako ikastolen jaialdiaren koordinatzailea, ALEAREN erredakzioan. | A. AMENABAR

Joan den Araba Euskaraz amaitu eta berehala ekin zioten hurrengo urteko ikastolen jai handia prestatzeari. Ekainaren 19an ospatuko dute 2016koa, Agurainen, Lautada ikastolaren eskutik. *Geroari begira* lelo, etorkizuneko bidea "marrazteko" pausoak ematen hasi nahi dutela azaldu du jaialdiaren koordinatzaile Anjel Olalde. **2010ean egin bezala, berriz izango da Lautada ikastola antolatzailea.**

Orduan sortu zen ikastola eta *Gogoz biziz* lemapean abiatu zen 2010eko Araba Euskaraz hartan. Orain, berriz, zer lortu nahi dugun erabakitzeke momentua heldu da; atzera begira beharrean aurrera begiratu nahi dugu eta hortik sortu da aurtengo *Geroari begira* goiburua. Sustraiak non ditugun jakinda, aurre-

rantzean zer lortu nahi dugun zehazteko garaia dela uste dugu. Bide horretan denok partaide gara eta izatea nahi dugu, ez bakarrik ikastola. Hau euskalduntze prozesuan beste pauso bat da eta denon ekarpena behar beharrezkoa izango da.

Datorren urterako ekarpenak jasotzen ari al zarete?

Ekainetik lanean murgilduta gaude, eta hainbat ekarpen jaso ditugu ikasleen zein beste eragileen aldetik, musika osatzeko edo egunerako ekitaldi desberdinak egiteko. Ibilbidea zein izango den ere zehaztu dugu, baina oraindik findu egin behar dira gauza ugari. Jasotako proposamen guztiei forma ematea falta zaigu orain. **Urtez urte, lantalde finko bat duzue jaialdia prestatzeko?** Ez dago talde finkorik, aldatu egiten da, eta batzue-

tan abantaila den arren beste batzuetan ere kontrakoa izan daiteke. Urtero asmo berriak sortzen dira eta hasieran martxan jartzea zaila izaten da, baina egia da bizitasuna ematen diotela horiek proiektuari eta hori aprobetxatu behar dugu; herritik ber-

"Eraikinak duen zama ekonomikoa arintzeko baliagarri izango da 2016koa"

tatik sortutako proposamenak izanik, herriak berak hartzen du protagonismoa eta horrek indartu egiten du Araba Euskaraz. Era berean, urtez urte, aurreko lantaldeek egindako memoria txostena jasotzen dugu, aurrera begira lanean hasteko abia-

puntu bat izateko; eginda-koek nola funtzionatu duten ikusi eta egin behar ez direnak kontuan hartzeko. **Zer nobedade izango dira aurtengo jaialdian?**

Arabak Euskarazek berrikuntzak behar ditu eta horretan ari gara. Azken urteetan Erronka izeneko proba lehiaketa izan da gazteentzat eta hurrengo urtean, helduak erakartzeko helburuarekin, Erronka gastronomiko bat prestatzen ari gara, hain zuzen ere gurasoek parte har dezaten. Euskalduntze prozesuan helduok dugun zeregina azpimarratu behar dugu eta dakigun guztia erabili behar dugula gogoratu. Horregatik, hain zuzen, helduen euskalduntzean urteetan egindako lanagatik Aguraingo AEK euskaltegia omendu nahi dugu. Helduen erabilera bultzatu gabe alferrik ari gara.

Zer behar ditu Lautada ikastolak? Zertara bideratuko da 2016an bildutakoa?

Batetik, barne kohesioa bultzatu nahi dugu eta ikastola herrian ondo txertatuta izateari garrantzia berezia eman nahi diogu. Bestetik, eraikinak duen zama ekonomikoa arintzeko baliagarria izango da bildutakoa. Eraikina erosi zen, eta orain herritarren zerbitzura jartzea da helburua.

Bete ziren aurreko jaialdian aurreikuspenak?

Gasteizen jaialdia egiteak –Oiongo San Bizente ikastolak antolatuta zuen– gauza onak izan zituen, besteak beste, Arabako Errioxako egoera ezagutzera emateko. Baina, era berean, Oiongo inplikazioa herrian bertan eginda baino txikiagoa izan zela ikusi genuen; alde horretatik pixka bat kezkatuta gaude, agian auke- ra bat galdu genuelako. Zailantza dugu baliagarria izan ote zen Oiongentzat.

Aterpea egin nahi dute Kanpezuko maisuen etxean

Azaroaren 3an onartu zuten datorren urteko aurrekontuen proiektua; aterperako 435.000 euroko partida aurreikusi dute

MIRIAN BITERI

SANTIKURUTZE KANPEZU

Kanpezun dagoeneko badute 2016rako aurrekontuen proiektua. Azaroaren 3an egindako osoko bilkuran onartu egin ziren datorren urterako kontuak Kaixoren zinegotzien aldeko botoekin, eta EA-Jkoen abstentzioarekin.

Proiektuak, denera, 1,77 milioi euro aurreikusten ditu. Diru gehiena Udalaren eguneroko funtzionamenduari eta gastuei aurre egiteko erabiliko bada ere, datorren urteari begira, udalerrian hainbat inbertsio egiteko asmoa ere badago. Manu Muñoz zinegotziak azpimarratu du garai bateko maisuen

etxean udal aterpea egiteko asmoa dagoela, eta horretarako, 435.000 euro inguruko partida bideratuko dutela. Gaineratu du urtea amaitu baino lehen hasiko direla gaia mugitzen. Horrekin lotuta, honakoa azaldu du: "Hasi hasi egingo gara; proiektua egingo dugu urte buketarako. Baina, eraikina Udalarena baldin bada ere, inbertsio potoloa da, eta ikusi beharko dugu zelan bideratzen dugun; finantzazioa beharko dugu eta".

Ez da inbertsio bakarria izango. Araba Camper autokarabanentzako gunea herriko kirol instalazioetan txertatu ahal izateko



Santikurutze Kanpezun egingo dira inbertsio gehienak. | KANPEZUKO UDALA

hainbat lan ere egin beharko dira, eta horretarako, 270.000 euro inguru bideratzea aurreikusi dute.

Horrez gain, ikastolako jolastokian dagoeneko jarrita dauden kolunpioak ere ordainduko dira datorren urtean; eta udalerriko administrazio batzarrei, bestalde, 20.000 euroko laguntza emango diete.

Parte-hartzaileak

Muñozek aurrekontuak aurrera atera ahal izateko egindako parte-hartze pro-

zesua nabarmendu du. Txalotu nahi izan du herriarren jarrera, gaia lantzeko egindako hiru bilkuretan 25 lagun inguruk parte hartu dutelako. Batzar horietan Udalaren funtzionamendua ezagutzeko eta dirua zertan gastatzen den jakiteko aukera izan dute kanpezuarrek; eta baita proposamenak egiteko ere. Herriarrek ez ezik, administrazio batzarrekin eta oposizioarekin ere beste horrenbeste bilkura ere egin izan ditu korporazioak.

ZINEA

'Amama' filma helduko da asteburuan Mendialdeara

M.B.

MAEZTU

Donostiako zinemaldian lehiatu ostean, asteburuan Mendialdean izango da *Amama* izeneko filma. Arraia-Maeztun ostrialean ikusi ahalko da, udaletxean, 20:00etan. Jarraian, Amezti euskara eta kultura elkartearen eskutik, afaria izango da Birgarako tabernan. Santikurutze Kanpezun ere egunotan eskainiko dute esandako filma. Larunbatean, azaroak 21, izango da herriko kultura etxean, 19:00etan.

Arabako Foru Aldundiaren Zinemaieran programaren eskutik, herririk herri dabil asteotan *Amama*. 2015ean Asier Altunak zuzendutako euskal filma da; bergararrak euskaraz egin duen bigarren film luzea da, *Aupa Etxebeste!* eta gero.

Donostiako Zinemaldian sail ofizialean izan zen eta Euskal Zinemaren Irizar saria jaso zuen. Horrez gain, Euskal Gidoigileen Elkarteak ere Euskal Gidoi Onenari saria eman dio.

EUSKARA

Mikro-ipuin lehiaketa deitu dute lehen aldiz Maeztun

M.B.

ARRAIA-MAEZTU

Arraia-Maeztuko Udalak euskarazko mikro-ipuin lehiaketa antolatu du. Idazlanak azaroaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira udaletxean bertan edo ikastetxean.

Lanak euskaraz idatzitako ipuinak izan beharko dira, eta gehenez, 100 hitz izango ditu. Egile bakoitzak nahi beste idazlan aurkezteko aukera izango du, aurretik argitaragabeak eta edozein lehiaketetan

aurkeztu gabekoak diren bitartean.

Lehiaketa bi mailatan egongo da banatuta: batetik, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ari diren ikasleen atala dago; eta bestetik, 17 urtetik gorako lagunena.

Epaiabenduaren 3an

Epaimahaiak jasotako idazlanak aztertu ostean, abenduaren 3an ezagutaraziko dira irabazleak. Sari bana emango da maila bakoitzean.



Zanbranako alderdi independentearekin alkate aukeratu dute Aitor Abecia, hirugarrenez; argazkian, herriko plazan. | A. AMENABAR

AITOR ABECIA

ZANBRANAKO ALKATEA Hirugarren legealdia betetzen ari da Aitor Abecia buru duen plataforma independentea; obra handiei beharrean, arreta nagusia auzolana edota eguneroko kudeaketa txikiari jarri diotela esan du. **A. AMENABAR** ZANBRANA

"Bolada baterako kontua zela uste zuten, baina geratzeko etorri gara"

Hasiera zalapartatsua izan zuen Aitor Abeciak (Zanbrana, 1979) alkate modura. Aurreko udal gobernu taldea agintean zela, industria gune berri bat eraikitzeko lehen-dabiziko pausoak ematen hasi ziren; udalerriaren egitura erabat alda zezakeen proiektua esku artean zuten eta haren inguruko informazioa eskuratzeko "zailtasunak" izan ziren udaletxean sartzeko arrazoi nagusia, azaldu duenez.

Arabako ustezko ustelkeria kasu handienetako baten *–De Miguel* auzia– hari mutur bat baino ez zen.

Zein helburu zuen plataforma independenteak Zanbranako Udalean?

Herritarrek jakin behar zuten zer asmo zuten udaletxerako. Udaletxeko ateeetatik ez zen informaziorik ateratzen eta bertara sartu beste aukerarik ez genuen. Gure asmoa zinegotzi bat izatea zen informazio guztia eskura eduki ahal izateko, eta agintera

heldu ginen 2007. urtean. Kontu ilunak aurkitu genituen, oraindik ere auzitegien esku daudenak.

Geroztik, hirugarren legealdia bete behar duzue, eta Araban ere beste hainbat plataformek indarra hartu dute. Zein da herri plataforma independenteen arrakastaren sekretua?

Duela gutxi lagun baten tesina irakurri nuen eta bat nator bertan esaten zenarekin: ondo funtzionatzen dute herritarren kezka batetik sortutako plataformak direlako, ale-

gia kezka zehatz batek bultzatu dituelako. Aldiz, ohiko alderdiak herritarren kezken atzetik doazela iruditzen zait. Araban momentu honetan zazpi talde independente gaude agintean; PSEk eta PPK baino zinegotzi gehiago ditugu herrietan, eta hori ez da nolanahikoa. Ohiko alderdiek uste zuten, gainera, bolada bateko kontua zela gurea, berehala desagertuko ginela, baina geratzeko etorri gara; Podemosekin alderatzen gaituzte

orain, baina gu eurek jaio egin ez zirenean ere lanean geunden. Noski, alderdi politiko handi askori ez zaio aniztasuna komeni eta ekonomikoki zigortzen gaituzte; eurek baino hobeak izan behar dugu subentzioak jasotzeko, alderdiaren karneta erakusterik ez dugulako.

Herritarren parte-hartzea eta gardentasuna nabarmentzen dituzte maiz alderdiek.

Eta badirudi eskerrak eman behar dizkiegula beraien zeregina dena betetzen dutelako. Politikoak gardena izateko eta herritarra entzuteko obligazioa dauka. Askotan proiektuak jendaurreko kongresu batean aurkezten dituzte dena erabakita dagoenean eta "partehartzailea" dela diote; hori gardena izan daiteke, baina partehartzailea ez. Guk erabakiak kalean hartzen ditugu, ahalik eta jende kopuru handienarekin. Guri aginduak ez zaizkigu Bilbo edo Madrildik heltzen, Zanbranako txokoetatik baizik.

Beste komunikazio bide bat ere antolatu duzue herritarrek parte hartzeko.

Lelokeria eman dezake, baina 200 laguneko whatsapp talde bat dugu herritarren inguruko albisteak komentatzeko. Gaur bertan apurtutako zakarrontzi baten argazkia bidali didate eta laster izango da konponduta. Kultura eskaintza guztiaren berri ematen dugu bertan... Noski, halakoak herri txikietan bakarrik egin daitezke.

Zer proiektu dituzue mahai gainean?

Garai batean obra handienak egiten zituen alkatea zen onena, eta zorionez kontzeptu hori aldatzen doa; azpiegitura erraldoiez beteta daude herriak, eta orain aurre egin ezinik dabilta. Azpiegiturak beharreen, herritarren zerbitzurako gidaliburu bat da



Lehen sektorea Zanbranako "enpresa nagusia" dela nabarmendu du Abeciak. | A. AMENABAR

une honetan esku artean dugun proiektu nagusietako bat; askotan herritarrek ez dakite zer burokrasia duten aurretik eta lan horretan laguntzeko egitasmoa prestatzen ari gara, lan hori arindu nahi dugu. Askotan gauza txikiak diruditenak buruhauste handienak dira; 80 urteko emakumearentzat haren fakturak irakurtzen laguntzea garrantzitsuagoa da edozein pilotaleku berri baino. Dirurik balio ez duten lan txiki horiek dira udal txiki hauen zeregina. Azpiegitura berriak beharreen jendeak gestore on bat behar duela iruditzen zait.

Portillako gaztelua lehengoratzeko hainbat lan egin duzue.

Udalean sartu ginenean plan zuzendari batek esaten zuen Zanbrana zela udalerri bakarra Euskadin interes historiko "eskasa" zuen, eta horrek haserretu gintuen; udalerrian bi gaztelu ditugu, beste inon ez bezala, eta Arabako armarraren ikur ere bada. Auzolanari ekin genion, eta oiha bat baino ez zena bisitatzeko leku izatera pasa zen. Udalak merienda jarri eta 45 saiotan atondu zuten herritarrek inguru hori.

Gazteluen Bidea osatu genuen, eta orain bigarren faseari hasteko zain gaude, baina, finantziarioa beharko dugu.

Zanbranako errepidea zabaltzeko proiektua ere mahai gainean du Aldundiak.

Eta guk geldiaraztea eskatu dugu. Sei kilometroko tartean hainbat gune arriskutsu daude eta, noski, horiek kentzea nahi dugu baina ez dugu uste halako

"Azpiegitura berriak beharreen, gestore ona behar du herriak"

inbertsioa egin behar denik. 30 milioi euroko inbertsioaz ari gara; nola azalduko diegu herritarrei bost milioi euro gastatuko dituztela kilometro bakoitzeko? Segurtasunarekin batera, lana sortuko dutela nabarmentzen dute: 15 langile izango dira. Zoratu gara? 30 milioi horiek eman Zanbranari eta ikusiko duzue nola sortzen ditugun lanpostuak, edozer egiten, basoetako biomasa jasotzen... Ez dakit konturatu

garen oraindik, baina Araban 23.000 langabe ditugu.

Zer bilakaera izan du langabeziak Zanbranen?

Zanbranan hiru lantegi nagusi itxi zituzten, adreilu eta burdinari lotutakoak, baina ez lanik ez zegoelako, finantziarioz ez zutelako baizik. Eta errepidearen proiektu erraldoi horrekin lehen sektorea kaltetzeko arriskua ere badago, nekazal kooperatibarako egungo sarbideak itxiko dituztelako eta izugarrizko bidaia egin beharko dutelako bertara heltzeko. Lehen sektorea da une honetan gure "enpresa" handiena eta zaindu egin behar dugu, lanpostu gehien sortzen dituen da, eta ezin dugu ito.

Epe luzera begira, zer helburu dituzu?

Hirugarren legealdia da eta gustatuko litzaidake lekukoa besteren bati uztea, baldin eta egindako lanaren jarraipena bermatzeko hautagairik balego. Egia da politikaz nazkatuta daudela gazteak eta gogorik gabeko belaunaldi bat dugula, inguruan ikusi dutenagatik. Gustatuko litzauguke lekukoa eurek hartzea baina lan egin beharko dugu.

Autobus lineak neguko ordutegia du igandetik

Logroñora doan lineak ibilbidez aldatu du eta horrek aldaketak eragin ditu Konderrian

MIRIAN BITERI

TREBIÑU

Hainbat aldaketekin dator azaroaren 15etik apirilaren 15era bitartean martxan egongo den Trebiñuko autobus linearen neguko ordutegia. Horieta bat da orain arte Errioxara, Logroñora, zihoan autobusa konderritik pasatzen zela, eta orain ibilbidez aldatu duela esandako lineak; eta horrek eragina izan duela barrendegian, bereziki, maiztasunari dagokionez.

Aurrerantzean, gutxiagotan pasatuko da autobusa; bada, ordutegiak trebiñarren beharretara egokitu izan dela uste du Trebiñuko taxilari lanak egiten dituen Celia Villabuenak. Astegunetan, esaterako, Armentiatik Gasteizera joan ahal izateko zazpi frekuentzia daude. Horieta bi, Lagranetik irtengo dira; hain zuzen, goizeko eta arratsaldeko lehen orduetakoak.

Bezeroen kexak

Goizeko lehen orduko autobus horren ganean kexaren bat edo beste ere entzun behar izan ditu egunotan



Konderriko autobus gehienak Armentiraino doaz. | ALEA

Villabuenak. Apur bat beranduago datorrela orain; neguko ordutegiarekin 07:22etan du hitzordua, Armentian. Hori hamar bat minutu aurreratzearekin nahikoa izango litzatekeela uste du Villabuenak.

Autobusak Argantzun eta Armentiaraino heltzen baldin badira ere, barrendegiko gainerako herrietara joateko aukera izaten jarraituko dute trebiñarrak, eskaera bidezko taxiari esker. Gaur egun, bi taxi-gidarik eta Vicolux enpresak egiten dute

barrendegian; Villabuena, esaterako, mendebaldeko herritarrak etxera gerturatzear arduratzen da.

Villabuenaren ustez, autobusa dagoen bezala, taxi zerbitzua ere egon beharko litzateke asteburuan; astegunetan eta larunbata eguerdira arte erabili daiteke hori hama-bi ordu lehenago deituta 600 464 874 telefono zenbakira deituta edo *taxitre-vino@gmail.com* helbidera mezua bidalita. Arabako Diputazioak diruz laguntzen du zerbitzu hori; prezioa 1,7 eurokoa da.

Datorren urteko egutegia egiteko marrazki lehiaketa deitu dute Trebiñun

M.B.

TREBIÑU

Trebiñuko Konderriko Udala datorren urterako argitaratuko duen egutegia prestatzen hasi da, eta horretarako, haurrentzako marrazki lehiaketa antolatu du. Abenduaren 2ra arte aurkeztu daitezke lanak, udaletxean edo internet zentroan.

Denera, urtarokoak islatzen dituzten sei argazki aukeratu dituzte. Horieta lau irudi Trebiñuko Konderriko umeenak izango dira; lehiaketa bidez aukeratu dira. Gainerako beste biak Trebiñuko eskolan euskara eskoletara joaten diren haurrenak izango dira.

Bakoitzak marrazki bat

Parte-hartzaileek, gehienez, 13 urte izango dituzte. Bestalde, ume bakoitzeko marrazki bana aurkeztuko da, DN3 tamainako papelean, kolore zurian, lauki-sarerik gabe eta diseinu etzanean.

Margoarekin batera, beste orri batean, egilearen izen-abizenak, harremanetarako telefono zenbakia eta marraztutakoaren azalpen txikia jarri behar da.

Udaletik gogorarazi dute aurkezten diren lan guztien jabetza antolatzaileen eskutara pasako dela, eta beretzat gordeko dutela beraien argitalpenean erabiltzeko eskubidea, beti ere egilearen datuak aipatuz.

Ordutegi berriak

IBILBIDEA	ASTELEHENETIK - OSTIRALERA	ASTEBURUAK
GASTEIZ-ARMENTIA	05:50, 08:00, 15:00, 18:15, 20:10	09:00, 14:00, 17:00, 19:00
ARMENTIA-GASTEIZ	07:10, 09:20, 16:20, 19:30, 21:20	10:20, 15:20, 18:20, 20:20
GASTEIZ-ARGANTZUN	07:00, 08:30, 10:30, 12:00, 15:10, 16:30, 18:15, 19:00, 20:30	10:30, 16:30, 19:00
ARGANTZUN-GASTEIZ	07:20, 08:20, 10:50, 11:20, 13:50, 15:30, 17:35, 19:35, 21:30	11:30, 15:50, 21:40

Hitzordua dute asteburuan euskaldun zaharrek eta berriek, Villabuenan

Arabako Errioxa, Aiaraldea, Gorbeialdea, Lautada eta Gasteizko taldeek parte hartuko dute Arabako mintzalagunen topaketan

MIRIAN BITERI

VILLABUENA

Udaberrian beharrean, aurten, udazkenean egingo dute Arabako mintzalagunen topaketa; hain zuzen ere, larunbatean, azaroak 21, elkartuko dira Arabako Errioxa, Aiaraldea, Gorbeialdea, Gasteiz zein Lautadako askotariko herrietatik heldutako euskaldunak. Ikasturteari hasiera emango diote modu horretan.

Villabuena aukeratu dute eguna batera pasatzeko. Plan ederra izango dute aurretik. Goizean, herrigunetik kilometro batera dagoen *Ibaola harriak* izeneko hilerri atea bisitatuko dute; jarraian, Candido Besa upelategia ezagutuko dute.



Bastidako Bola-leku taldeko kideak ere izango dira topaketan. | MINTZALAGUNA

Upategian bazkaldu

Instalazioak ikusi ostean, bertan bazkalduko dute: errioxar erara egingako patatak eta saiheskiak, besteak beste. Azken horrekin lotuta, Arabako Errioxako Mintzalagunen koordinatzaile Gorka Beobidek

azaldu du partaideak arduratuko direla bazkaria girotzeaz, bakoitzari momentuan bururatzen zaiona egiten. Bazkalostean, berriz, Olatz Pagaldai aktore eskoriatzarraren bisita izango dute mintza-

lagunek; *Erdaldun berrien kluba* izeneko bakarriketa eskainiko die.

Topaketa honen garrantzia azpimarratu du Beobidek. Taldeak "dinamizatzeaz" gain, Araba osoko mintzalagunen

arteko "erlazioa" sendotzea bilatzen dela esan du.

Arabako Errioxan, 30 mintzalagun inguru daude aurten. Guardian, Bilarrren, Oionen, Logroñon eta Bastida eta Villabuenan osatu dira taldeak.

AIARALDEA BERTATIK BERTARA EZAGUTU NAHIP?

Mendi ibilbideak, BTT, zaldi ibilbideak, argazkiak, parapentea, natura, perretxikoak, herriak, ondarea...

ZELAIKOETXE

NEKAZAL-ETXEA OZEKA (AIARA)

Gorbeia auzoa 2
Tel. 667 402 245
j.artetxe@hotmail.com

NAROA CUESTA NISO

IGANDEAK JAI Euskarazko ikuskizuna bakarrik ez: "Familia osoa euskaraz ondo pasatzeko ekimen parte hartzailea da Iganreak Jai programa", Naroa Cuesta koordinatzailearen hitzetan. Asteburu honetan Ibaiondon dute hitzordua. **ITSASO ESTARRONA** GASTEIZ

"Familientzat euskarazko plana antolatzen dugu igandeetan"

Geu elkarteak 2013an abiatu zuenetik, bi mila gasteiztarrek baino gehiagok hartu dute parte Iganreak Jai programan. Hilean behin igande arratsalde batean, Gasteizko eskola bat aukeratu eta bertan bi orduko saioa egiten dute: antzerkia, musika eta magia ikuskizunak eskaintzeaz gain, ikusle huts izatetik parte-hartzaile izatera gonbidatzen dituzte familiak, programako koordinatzaile Naroa Cuesta Nisok (Gasteiz, 1985) nabarmendu duenez: "Ume eta helduei bere aisialdian elkarrekin euskaraz aritzeko aukera eskaini nahi diegu". **Asteko edozein egun aukeratu zenezaketan, baina igandea aukeratu zenuten.** Bai. Batetik, igande arratsaldetan ez delako gauza askorik programatzen eta, bestetik, arratsaldeak oso luze egiten zaizkielako umeei etxean, eguraldia txarra denean. Arabako Aiara herriko proiektu batetik ekarri genuen ideia: *Igande arratsaldeak* familian programatik, hain zuzen. Gasteizen ere, familientzat euskarazko plana antolatzen dugu igandeetan.

Nola sortu zenuten Gasteizko ekimena? Geu elkartearen baitan kultura taldea sortu genuen hainbat lagunek 2013an, aisialdiaren eremuan euskararen erabileran eragiten hasteko. Kultura talde horretako kideok sortu genuen egitasmoa. Batetik, taldea bera indartzeko amu gisa, eta bes-

Igandea 22an, Ibaiondon

IKASTOLAN (TARRAGONA, 9)

17:00 'Magia parrastan' ikuskizuna, Imanol Ituñoren eskutik.

18:00 Mago trajea eta truku desberdinak.

tetik, proiektuaren bidez familia transmisioa sustatzeko. Ekimeneko dirua lortzeko, lehiaketa batean parte hartu genuen, Topaguneak antolatuta (euskara elkarten federazioak): euskararen ginkanan, hain zuzen. Txapelketaren saria hiru mila euro ziren, proiektua garatzeko. Finalera iritsi arren, ez genuen irabazi, baina hala ere Iganreak Jai martxan jartzea erabaki genuen, Geu elkarteak bultzatuta, Gasteizko Udala eta Eusko Jaurlaritzaren babesarekin. Hasiera-hasieratik oso ondo funtzionatu duen ekimena da.

Nolakoa izaten da igande arratsaldeko plana?

Ekintza ibiltaria da: hilero bi orduko saio bat egiten dugu Gasteizko eskola batean: lehenengo ordubetean ikuskizun bat eskaini ohi dugu (magia, antzerkia, ipuin-kontalaria, musika...); eta, bigarren orduan, parte

hartzeko ekintzak antolatzen ditugu (jolasak, mozorro tailerra, esperimentuak...), Urtxintxa Eskolak gidatuta.

Euskaraz ez dakiten gurasoek ere parte hartu dezakete, ala euskaldunentzako saioak dira?

Zalantzak eta eztabaidak izan genituen hasieran, jarduera hau guraso euskaldunentzat mugatu edo ez. Azkenean, ez mugatzea erabaki

"Ume eta helduei bere aisialdian elkarrekin euskaraz aritzeko aukera bat eskaini nahi diegu"

"Geu elkarteak kultura taldetik sortu genuen ekimena; orain, talde hori indartu nahi dugu"

genuen, baina etortzen diren bikote, izeba-osaba zein aitona-amonek ulertu behar dute ekintza euskaraz dela eta azalpen guztiak euskaraz ematen ditugula. Emaizta onak eman ditu: oso polita izaten da umeak helduei jolasak azaltzen ikustea, itzultzaile lana egiten.

Familientzako jarduerak faltan sumatzen zenituzten lehen Gasteizen?

Gasteizko Udaletik eta beste eragile



Naroa Cuesta,
Gasteizko Geu
elkarteko bulegoan.

I. ESTARRONA

batzuetatik gauza asko antolatzen dituzte ume txikientzat, baina ez hainbeste familia osoarentzat: alegia, familiako kideek elkarrekin euskaraz parte hartzeko jarduerak. Bestalde, ikusteko emanaldiak izaten dira ohikoenak, jasotzeko, hain zuzen, eta guk parte-hartzea sustatu nahi dugu. Ez dugu ikuskizun bat eskaini nahi, haur eta gurasoen arteko hizkuntza-harremanaz kezkatu gabe: Igandeak Jai jardueran, ume eta

helduei bere aisialdian elkarrekin euskaraz aritzeko aukera eskaini nahi diegu.

Eskola bakoitzean, bertako familiek parte hartzen dute, edo baita beste ikastetxe batzuetakoek ere?

Guraso elkarteekin batera antolatu ohi dugu Igandeak Jai eta, gutxi gora behera, %60 eskolakoa izaten da, eta beste %40 kanpokoak.

Familiek errepikatzen al dute?

Bai, baditugu dagoeneko guraso

ibiltariak, saio gehienetara etortzen direnak. Normalean guraso euskaldunek errepikatzen dute.

Aurrera begira, zer erronka duzue?

Geu elkarteko kultura taldea indartu nahi dugu orain. Irakurleen artean norbaitek parte hartu nahi izango balu, gura deitu dezake (945-22 21 53) edo posta elektronikoko bat idatzi (geuelkartea@grn.es).

INTERNETEN: HIRINET.NET

Familian eragiteko

Eskolaz harago familian ere euskararen transmisioan pausoak emateko, Kuku gida jasoko dute Arabako familia berri guztiek emaginen haurdunentzako saioetan; sakelekorako aplikazioa ere egin dute. **ERREDAKZIOA** GASTEIZ

Arabako haurdun guztiek opari bat jasoko dute hurrengo bi urteetan, Osakidetza-ren emaginen saioetan: Kuku gida, jaio berriari euskararen transmisioan laguntzeko liburua, bai eta ingurune eleaniztun batean familia berri bakoitzak nola jokatu jakin ahal izateko. Arabako Foru Aldundiko Euskara zerbitzua, Osakidetza eta Unibertsitate-ospitalearen arteko emaitza da programa berria.

Eusko Jaurlaritzaren 1986ko mapa soziolinguistikoaren arabera, Araban bost urtetik gorako biztanleriaren %9 zen elebiduna, eta 2011n, aldiz, %25. Era berean, azpimarragarria da bai 1986an bai 2011 urteetan biz-

Arabian, 24-39 urte artekoen %26 elebiduna da; horietatik, hiru laurdenek etxetik kanpo ikasi dute euskara

tanleriaren %23 inguru euskara ikasteko prozesuan izan dela eta ari dela, hau da, elebidun hartzailea da, ulertzen du baina ez du hitz egiten. Hortaz, argazki orokorrean, biztanleriaren %48 elebiduna da, gutxiago edo gehiago.

Etxe kanpotik, etxera

Alabaina, nolako eragina izan dezake hurrengo belaunaldietan %48 elebidun horrek? 2011ko inkesta soziolinguistikoaren arabera, 24-39 adin-tartean dauden arabarren %26 elebiduna da, hau da, euskararen etxeko transmisioan eragin dezake. Datozen urteetarako proportzio datuak are hobeak izatea espero da. Euskararen transmisioa Araban bereziki oinarritzkoa da, izan ere, elebidunen %70ek euskara bigarren hizkuntza gisa jaso dute etxetik kanpo kasurik gehienetan.



Eskolaz harago, familian eragitea du helburu Kuku gida berriak; irudian, bi hauf. | GEU ELKARTEA

Familia bidezko transmisioa gakoa da hizkuntza aniztasunarekin bat datorren gizartearen lortzeko, Diputazioaren arabera; beraz, aurreko belaunaldiek egin duten apostua, euskara jakin gabe ere, transmisioa garatu zuten eskola eta euskaltegien bidez, belaunaldi berriek, elebidunagoak bestalde, ere jarraitu dezaten.

Mugikorrerako aplikazioa

Liburuak lau zati ditu. Hasieran umeen hizkuntza trebetasunak azaltzen ditu, eta hainbat erantzun ematen ditu gurasoek eleaniztasunean

hezteko izan ditzaketen zalantzen aurrean. Bigarren zatiak euskara-gaztelania hiztegitxoa du. Amaitzeko, DVD bat eranstean zaio, guraso eta txikitxoek erabili ahal izateko. Batetik, liburuxka bera digitalizatu da, besteak beste, gurasoek ariketak egin ahal izateko, euskarazko hitzak eta esamoldeak entzuteko...; eta, bestetik, umeek euskaraz jolasteko. DVDaren edukiarekin telefono eta tabletetan erabiltzeko aplikazioa prestatu dute, App Storen eta Google Playn eskuragarri dagoena.



ZOZKETAK

Harpidedunentzat eskaintzak

Zehaztu zure izen-abizenak eta zer zozketatan parte hartu nahi duzun:



695 63 28 62



erredakzioa@alea.eus

BERTSO-AFARIA SALBURUAN
ABENDUAK 11, OSTIRALA, 21:30EAN TIC-TAC TABERNAN (ATENAS IBILBIDEA 4)
*BIBOTZEN HASTEN O 20000LAN KOKOA TABERNAN ELKARTU O GARA.
//FREDI PAIA
//IÑAKI VIÑASPRE
SARRERAK BERTAN SALGAI 17€
Sarburu
KULTUR ELKARTEA

Bertso-afaria Salburun

Salburua auzoko Sarburu kultura elkarteak bertso-afaria antolatu du [abenduaren 11n](#) (ostirala). Sarrera bikoitza lortzeko, eman izena [azaroaren 30a](#) baino lehen; abenduaren 4an jakinaraziko dugu irabazlea.



Vendetta kontzertuan

Vendetta taldeak kontzertua eskainiko du Jimmy Jazz aretoan, [azaroaren 27an](#) (ostirala), 21:30ean. Sarrera bikoitza eskuratzeko, eman izena [azaroaren 24a](#) baino lehen. Azaroaren 25ean jakinaraziko diogu zuzenean irabazleari saritua izan dela.

Azken zozketako irabazlea:

Rayden kontzertuan:

Beñat Sanchez Agirre (Gasteiz).

Hala Bedin afaria:

Olga Resa Ajamil (Gasteiz).

KOMERTZIALA (KOM_AR_2015 erreferentzia) BERRIA Taldeak komertziala behar du Araban.

Eskatzen da:

- Komertzial lanetan esperientzia izatea.
- EGA edo baliokidea den euskara maila.
- Araban bizi eta herrialdea ongi ezagutzea.
- Izaera dinamikoa eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Gidabaimena eta autoa izatea.

Eskaintzen da:

- Laneko kontratua, Gizarte Segurantzarekin.
- Soldata finkoa, komisioz osatua.

Interesa duenak bidali curriculumak gizabaliabideak@berriataldea.net helbide elektronikora, KOM_AR_2015 erreferentzia zehaztuta, 2015eko azaroaren 30a baino lehen.



GASTEIZ

Haizea Garcia Arkaute

"Zorionak Haizea! Hamar urte! Urte polita opa dizugu. Familia".

Norbaiti zure mezua
helarazi nahi diozu?
erredakzioa@alea.eus
625 231 603



GASTEIZ

Aitor Goicolea

"Zorionak! Gainean eroriko zaigun pianoa geroz eta hurbilago dugunez, irrikitan gaude zure eguna zurekin ospatzeko! Ez zaitez inoiz aldatu, ardo ona bezala urteekin hobera baitzoaz maitia! Zure kuadrilla".



GASTEIZ

Urtzi Arakama

"Hogeita hamaika urte... ziur zaude zapi horren azpian ez zaudela burusoil? Zorionak, Urtzi! Ostiralean ospatuko dugu. Besarkada bat kuadrillaren partez".



abenduaren 4tik 8ra

www.durangokoazoka.eus

ANTOLATZAILEA



BABESLE NAGUSIAK



BABESLE PUBLIKOAK



BABESLE PRIVATUAK



HITZ GEZIDUNA



Palestinako hiria

Aurpegiaren alde

*

Kisulabe

Espainiako hiria

Lapurdiko herria

Pl., fruitu mota

Bilgor

Emirerri bat

Zalutasun

Garraio mota

Afganistango hiriburua

Ozta

Kanpo, landa

Soldata

Mendi kraterduna

Galioren ikurra

Jipoitu

Lotan

Sufrearen ikurra

Atseginak

Goratzeko makina

Zintzo

* Aiarako dorretxea

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNA

N	U	S	V	I	L	O	Z
O	L	I	V	B	U	D	S
I	O	D	O	B	E	S	
V	I	N	V	A	L		
G	A	E	L	K	A	O	B
I	O	I	M	K	A	T	
V	G	R	U	M			
L	I	A	S	M			
A	S	R					

SUDOKUA

5	6	7	8	9	1	2	4
3	8	4	2	7	9	6	5
9	2	6	5	1	3	8	7
4	2	8	1	7	5	2	9
6	5	4	2	9	8	3	1
9	6	5	9	3	6	4	8
3	8	6	7	2	5	4	1
8	1	5	4	3	6	9	7
2	4	7	9	5	1	3	8

GOITIBEHERA

N	U	D	L	V	H	V
V	D	N	V	U	L	
V	D	N	V	L		
V	N	V	L			
V	N	V				
V	N	D	N	V		
V	N	I	D	V		
V	I	D	N	V	H	
V	E	N	D	A	I	A

SUDOKUA

	4		9			6		
8		5	4				7	
3							4	1
		2			4		5	
			2		8			
	3		1			2		
7	8							6
	9				2	1		3
		1			3		9	

Nola jokatu? 9x9-ko lauki honetako gelaxka hutsak bete behar dituzu, 1etik 9ra bitarteko zenbakiekin; zenbaki bakar bat ere ez da bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, eta ezta dagokion 3x3-ko laukian ere.

GOITIBEHERA

1

2

3

4

5

6

7

8

9

Nola jokatu? Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu behar duzun hitzak.
1. Lapurdiko kostaldeko herria. 2. Ez txikia, ez ertaina. 3. Urteen kopurua. 4. Kuartangoko kontzejua. 5. Emakume izena. 6. Zeregina, eginkizuna, beharra. 7. Kanpo, at. 8. Angolako hiriburua. 9. Ahalak ditu.

ALEA 29



ALEA

Tutan Come On taldea

Gasteiz. Asteartea 24, 20:30ean, Parral tabernan.

AZAROAK

20

AZAROAK

26

EUSKARAREN AGENDA

MUSIKA

Sei Pistols eta Trabuko Bat

Aramaio. Igandea 22, 14:30ean, Gantzagako jaietan. Kantu bazkaria; aurretik izena eman behar da 669 94 65 94 telefonoa.

Mobydick

Gasteiz. Osteguna 26, 19:30ean, Oihanederren.

BERTSOLARITZA

Bertso afaria

Gasteiz. Ostirala 20, 21:00etan, Larragorri elkartearen, Ariznabarran. Andoni Egaña eta Arkaitz Estiballes bertsolariekin.

Bertso afaria

Murgia. Ostirala 20, 21:00etan, gaztetxean. Aimar

Artisautza eta sormenari buruzko hitzaldia, Blanca Gomez de Segurarekin

Aramaio. Osteguna 26, 19:00etan, kultur etxean.



JUANAN RUIZ

Karrika eta Izar Mendiguren bertsolariekin.

Bertso afaria

Antezana. Larunbata 21, 21:00etan, Iñurrita elkartearen. Oihana Perea eta Irati Anda bertsolariekin.

Bertso bazkaria

Ametzaga. Larunbata 21, 14:00etan, elkartearen. Eneko Lazkoz eta Unai Muñoarekin.

DANTZA

Dantza plaza saioa

Gebara. Igandea 22, 12:00etan, plazan.

HAURRAK

Umeentzako ikuskizuna

Gasteiz. Ostirala 20, 17:30ean, Landatxoko gizarte etxean.

'Herriko azken lamia', ipuina

Gasteiz. Larunbata 21, 11:30ean, Iparralde gizarte etxean. 5-8 urte bitartean. Sustrairbarren eskutik.

'Kantuz eta kontuz', ipuin musikatua

Gasteiz. Larunbata 21, 12:00etan, gizarte etxean. 3-6 urte bitartean. Antton Aranburu eta Sonia Verarekin.



JUAN CARLOS RUIZ

Bertso saioa

Gasteiz. Osteguna 26, 21:30ean, Gaztetxean. Euskararen Asteari hasiera

emango diote batukada kalejira eta bertso saioarekin. Amets Arzallus, Irati Anda, Sustrai Colina, Oihana Bartra,

Manex Agirre eta Alaia Martin – argazkian— igoko dira taula gainera. Ondoren, Tarantistak DJak izango dira.

Umeentzako jolasak eta puzgarriak

Aramaio. Larunbata 21, 17:30ean, Gantzaga auzoan.

'Sesamo ireki zaitetz' antzerkia

Ondategi. Larunbata 21, 19:00etan, Zigoitia aretoan.

'Ai ze haizea!'

Gasteiz. Igandea 22, 12:00etan eta 18:00etan, Kunarten, Abetxukun. 3-5 urte bitartean.

Lizarrustira txangoa

Araia. Igandea 22, 10:00etan, autobus geltokitik abiatuta. Atxipi mendi taldearen eskutik. Umeentzako txangoa.

Magia saioa

Gasteiz. Igandea 22, 17:00etan, Ibaiondo ikastolan. Imanol Ituñoren magia saioa. Igandeak Jai egitasmoaren barruan.

ANTZERKIA

'Arrastoak', Dejabu

Panpin taldearekin

Gasteiz. Larunbata 21, 19:30ean, Harresi aretoan.

'Adarretatik zintzilik', Gilkitxaro taldearekin

Gasteiz. Asteartea 24, 19:00etan, Oihanederren. Ane Zabala eta Galder Perez aktoreekin.

BESTELAKOAK

Arabako mintzalagunen topaketa

Villabuena. Larunbata 21, 14:00etan, Candido Besa upategian. Olatz Pagaldairen bakarriketa izango da bazkalostean.

Geurekin mendira

Gasteiz. Igandea 22, 10:00etan, Mendizorrotzako aparkalekutik abiatuta. Arrigorristara familia txangoa.

'Haurren herria' diaporama

Gasteiz. Asteartea 24, 20:30ean, Hordago tabernan.

Literatura Txokoa

Agurain. Asteazkena 25, 20:00etan, Jai Alai tabernan. Mikel Peruarena idazlearen *Su zelaia* eleberria izango dute solasgai.

Irakurle Kluba

Gasteiz. Osteguna 26, 20:00etan, Ignacio Aldekoa kultur etxean. Unai Elorriaga idazlearen *Iazko hezurrak* izango dute solasgai.





FAMILIA HARRERA



Araban ume askok harrera familia bat behar dute, aldi baterako zaindu eta etorkizun hobe eskainiko dietena.

**Familia bat
behar dugu.**

**Hartuko
gaituzu
zurean?**

945 773 052

www.alava.net/ifbs



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava